

...eta **kitto!**

802 zkia. 2012-IV-20

ASTEKARIA

Euskal Herriko **ZEHARKALDIA** 19 etapetan



EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean





RPS 04/02

IRAZABAL

clínica dental

**Antonio Murillo
doktorea**

- PERIODONTZIA
- INPLANTOLOGIA
- AHO-KIRURGIA


**Ainhoa Zulueta
doktorea**

- ODONTOLOGIA OROKORRA
- PROTESIAK
- ESTETIKA


**Susana Sierra
doktorea**

- ORTODONTZIA
- OKLUSIOA

Invisalign ortodontzia ikusezina



Incognito mihi-ortodontzia



Ortodontzia estetikoa eta ikusezina


ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera: 10-14 eta 16-20h / Ostiraletan: 10-14 eta 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com



Ignacio Zuloaga Institutua

EIBAR



Ate irekien eguna

Apirilak 24

Ordua 18:00

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak



Alemania - Ingalaterra



Jardinetan 3 Eibar - Tel.: 943208349 - Fax: 943208048 - www.ignaciozuloaga.net - E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



ARGITARATZAILEA:
 ...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA:
 Urkizu, 11 - solairuartera
 20600 Eibar
TELEFONOAK:
 943 20 67 76 / 943 20 09 18
FAXA:
 943 20 28 72
Astekariaren E-MAILak:
 erredakzioa@etakitto.com
 komunikabideak@etakitto.com
 publizitatea@etakitto.com
Elkartearen E-MAILak:
 elkarte@etakitto.com
 normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
 Itziar Albizu
 Maider Aranberri
 Ekhi Belar
 Jose Luis Gorostegi
 Silbia Hernandez
 Koldo Mitxelena
ADMINISTRAZIOA:
 Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA:
 Koldo Mitxelena
ERREDAKZIO-BURUA:
 Silbia Hernandez
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
 Jose Luis Gorostegi
ARGAZKI ARLOA:
 Leire Iturbe, E. Belar
 eta S. Hernandez
HIZKUNTZA ARDURA:
 Juan Andres Argoitia
 Maider Aranberri
PUBLIZITATEA:
 Itziar Albizu
 Belen Ulazia
Tfnoa: 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA:
 Klub Deportiboko Mendi Taldea
BANAKETA-ARDURADUNA:
 Ainhoa Luz
TIRADA:
 8.050 ale
INPRIMATEGIA:
 GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A:
 ...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA:
 SS/430/92
 ISSN: 1132 - 1679
 ("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-
 dizkarian adierazitako esanen
 eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IPOIN/IPUIN.- Ahozko edo idatzizko kontakizun laburra. "Hirurogeita hamabi ipoin dira liburuaren orrixen barruan". Barriketa, berba-jarioa. "Ipoiña horrek ugari, baiña ez jok, sekula, ganorazko gauzarik egin". Gezurra. "Medikuak ipuiña besterik etxaukek".

IPOIÑAK ESAN.- Ipuinak kontaktu. "Txikittan, Peru ta Marixan ipoiñak esaten genduzen eskolako ataixan". Gezurrezko aitzakiak ipini. "Zorrari erantzun biharrian, ipoin batzuk esanda itxuli dau".

ESKUTITZAK

KARABANENTZAKO LEKU APROPOSEN ALDE

Azken aldian gero eta autokarabana gehiago ikusten ditut kale bazterrean aparkatuta. Kalean diodanean, herrian edota herri-ingurunean esan nahi dut. Mendiguren eta Zarrua zegoen lurretan ere hasi dira dagoeneko autokarabanak lagatzen. Herritar moduan, ez zait batere ondo iruditzen kaleko edozein bazter eta txokotan horrelakoei aparkatzen lagatzea. Iruditzen baitzait leku aproposagoak daudela hauek gordetzeko.



Sasoi batean ohikoa ez bazen ere, gaur egun gero eta gehiago dira autokarabanak dituztenak. Eta, horregatik, horiek aparkaleku berezietan egon behar direla pentsatzen dut. Zer irudituko litzaizueke kamioi

edo autobus gidariak euren kamio/autobusak edozein bazterretan lagatzen hasiko balira?

Orain Elgoibarren ireki berri den autokarabanak eta karabanak gordetzeko gunea ireki dute: 7.000 m²-ko lursaila, zerbitzuz hornitua (ur zikinak hustu, ur depositoa bete...) eta urteko 365 egunetan gainbegiraturua. Eta lekua oso aproposa da.

Uste dut badela sasoiak jendeak kontzientzia hartu dezan. Eta, bestetik, iruditzen zait udalari eta, orohar, udalei, dagokiela gai honetan esku hartzea. Nola? Autokarabanak edozein bazter edo txokotan aparkatzea debekatuko duen ordenantza sortuz. Horrela, araututakoa betetzen ez duenari, gainontzeko gaian bezala, isunak ipintzea eskubidetuko baitu. Dena dela, isunak ipini beharrik gabe ere, ea guztion artean gai garen kontzientzia hartzen hasteko!

AINHOA LENDINEZ

ESKERRIK ASKO, GUENAGA-GOMEZ FAMILIAREN PARTEZ

Guenaga-Gómez familiaren partez eskerrak eman nahi dizkizuegu duela bi asteko "Eta Kitto"-n agertu zen Marta Guenagaren orroigarriagatik, baita bere ikastolakoei zabaldu ere.

Adeitasunez,

M^a LUZ GUENAGA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Jendea herrialdeaz hain harro dagoen tokian, ez dugu ulertzen zergatik ez zaizkien interesatzen ibaiak euskaldunei. Beti mendi tontorrari begira eta ez dugu ikusten erreka zuloan dugun zaborra? Zenbat eta lagun gehiago bildu eta ibaiak garbitu, hurrengo uholdeetan ez da horrenbeste zikinduko"


(Anja Bernecker, erreka garbitzailea)

"Baserritik bizitzeko konforme izaten ikasi behar duzu; hor dago koska. Baserriko bizimodua eramanez gero, ez daukazu dirua gastatzeko denborarik ere: hori da aurrezteko modurik onena. Herrian bizi bazara, ordu batzuk libre badituzu, irten zintezke kalera; baserrian, asteburuetan ere ez aldendu gehiegi"

(Amelia Jauregi, baserritarra)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Kasinuak 100 urte bete ditte


CLUB EIBARRÉS ETA CASINO ARTISTA ALKARTIAK BAZTZIAN, 1912. URTIAN SORTU ZAN Estaziño eta Ibarcurtze alkatzen diran tokian Casino Artista Eibarrés alkartia. Mendeurrenaren harira hainbat ospakizun antolatu ditue eta lehelengo ekitaldixa maiatzaren 6xan izango da: 12.00xetan San Andres elizan meza berezixa ospatuko dabe, hildako bazkidiak gogoratzeko, eta mezan zein meza ostian Goruntz abesbatzak kantauko dabela aurreratu dabe antolatzailliak.



Jarraixan, Eibarko Bizikleta Plaza aldamenian, Toribio Etxebarria kalia Kasinuak dakan lokalian bazkide eta lagunendako piskolabisa eskinduko dabe. Horrekin batera, mendeurrena gogoratzeko insignia eta zigillua etara ditue.

Umien hezkuntza eskubidiaren alde

HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDU KANPAIÑIA OSPATUKO DA DATORREN ASTIAN eta Eibarren be hainbat ekitaldi antolatu ditue horren harira, aurten hezkuntza goiztiarraren (0 eta 6 urte bitartekua) defentsa ardatz izango daben kanpaiñarekin bat eginda. Kanpaiñako arduradunen berbetan, "2000. urtian, 189 herrialdek dokumentu bat siñatu eben Dakarren, hezkuntzarekin lotutako sei helburu 2015. urtia baiño lehen betetzeko konpromisua hartuta, baiña oindiok be, epia betetzeko hiru urte falta dirala, helburuak betetzeko bihar haundixa gertzen da egiteke". Kanpaiñiaren barruan hiru dokumental eskinduko ditue datorren astian, 17.00etan Juan San Martin liburutegixan: martitzenian "En el mundo a cada rato" (10-14 urte) proiektauko dabe, eguaztenian "Irudi Handia: eskubideak hasieratik" (6-9 urte) eta eguenian, barriz, "Amina y Musa aprenden" (6-9 urte).



Presuen aldeko ekitaldixa 27xan

AURREKO HILLIAN EGINDAKUAREN BIDETIK ETA AURRERANTZIAN HILLERO egingo daben moduan, datorren astian, hillaren 27xan presuen eskubidien aldeko "Azken Ostirala" ospatuko dabe, Eibarko Herrirak deittuta, 19.30xetan Untzagan alkatu eta giza-kataia osatuta. Gai honen gaiñian "Españiako estadiak aurrera daroian politikaren aurrian erantzuna emotia" biharrezkua ikusten dabe, "muturreko eta salbuespen egoerekin amaitzeko" eta, horregaittik, herritar guztiak parte hartzera animau nahi ditue.




Plaziari izena emoten detsan plakia erakutsi eta gero, etaratako talde-argazkixa. / LEIRE ITURBE

Armeria Eskola Plazia-ren inauguraziñua

AURTEN BERE SORRERIAREN MENDEURRENA OSPATZEN DIHARDUAN IKASTETXIAREN PARIAN, euripian inaugurau eben zapatuan Armeria Eskola Plazia. Miguel de los Toyos alkatia-rekin batera, Jose Luis Novoa Armeria Eskolako zuzendarixak eta Jose Mari Ulazia Iksale Ohien Elkarteko presidentiak ekitaldixan parte hartu ebenen aurrian erakutsi eben plaziari izena emoten detsan plakia. Han izan ziran, bestiak beste, udalbatza osatzen daben ziñegotzixak eta Usartza Txistulari Taldekuak.

Udala banderen inguruko legia betetzen hasi da

ASTELEHENAZ GEROZTIK EIBARKO UDALETXEKO BALKOIAN Europako, Españiako eta Eibarko banderak dagoz ipiñita, ikurriñarekin batera. Holan, eta oiñ hillebete batzuk aurreratutakuari jarraituta, banderen inguruko legiak agintzen dabena betetzen hasi da Eibarko udala be.



Soraluze S. Coop-en lehiaketa

"RETO AL FUTURO" JAVIER MURO ESKULTORE NAFARRAREN LANAK irabazi dau Soraluze S. Coop-ek antolatutako eskultura lehiaketia, kooperatibako bazkidiak hala erabagitta. Apirillaren 27tik aurrera kooperatibaren Osintxuko egoitzan egongo dan eskultura egunotan Soraluzeko kiroldegiko erakusketa aretuan ikusgai dago, lehiaketara aurkeztutako beste lanen erreplikekin batera. Gaiñera, lantegixa 1962an sortu ebenetik gaur egunera arteko irudixak be eskultureri laguntzen dagoz bixar arte martxan egongo dan erakusketan.




II. Errepublikaren 81. urtemuga goguan

ZAPATUAN, APIRILLAREN 14-AN BETE ZIRAN 81 URTE EIBARREN II. ERREPUBLIKIA BESTE IÑUN BAIÑO LEHEN

aldarrikatu ebela eta, urtero lez, hori gogoratzeko hainbat taldek ekitaldi mordua egin zittuen asteburuan. Zapatuan bertan alderdi sozialistako kidiak Untzagako "Casa del Pueblo"-ko balkoian Errepublikaren banderia ipiñi eben. Horren arduria egun historikua ezagutu eben Ernesto Gorosabelek eta Juan de los Toyosek izan eben.

Jarraixan, Txaltxa Zelaixan txapliguak botata gogoratu eben aldarrikapenaren urteurrena. Bestalde, Gazte Komunistak eta PCE-EPK alderdixak, Ezker Anitza-IUrekin batera "3. Errepublikarantz. Iragan, oraiña eta etorkizuna" Ermua eta Eibar bittarteko martxia egiñ eben eta Untzagan, udaletxe parrion Errepublikaren banderia jaso eben.




Gazte Komunistak, PCE-EPK eta Ezker Anitza urteroko omenaldixan. / LEIRE ITURBE

Eta domekan, barriz, Ahaztuak 1936-1977 alkartiak gogoratu eben aldarrikapenaren urtemuga, udaletxeko arkupien babes-pian eguardixan egiñ eben ekitaldixan. Gerturatu zirenak Salvador Amor eta Gabriel Ortega kantautoriak arratsaldian Portalean egiñ eben "Rojo. Cancionero y banderas rotas" diskua-ren presentaziñuaren aurrerapenarekin gozatzeko aukeria izan eben.



Ahaztuak alkartiak domekan egiñ eban ekitaldixa.



Untzagako "Casa del Pueblo"ko balkoiko ekitaldia zapatu eguerdixan. / LEIRE ITURBE

a u t u a n

IGOGAILLU ETA FATXADAK

Igogailuak jartzeko edo igogailu zaharrak kendu eta barrixak ipintzeko, fatxadak barrizatzeko obrak egitteko eta auzo-igogailuen mantenurako Udalak emoten dittuan diru-laguntzak eskatzeko epia zabalik dago. Informaziñua eskatzeko edo eskaerak egitteko Pegorara jo bihar da.

MAIXAREN INKESTIA

Domekan amaittuko da Maixa herritarren parte-hartzerako mahaixak Eibarren gaineko eritzixak jasotzeko preparau daberen inkestiari erantzuteko epia. Galdetegixari erantzun nahi detsanak www.maixa.org helbidera jo leike. Inkesten erantzunen gaineko datuak maiatzian emongo dittue ezagutzera.

OTEGUI HARATEGIA


Etxeko plater kozinatu
eta aurrekozinatuak

Mobila. 652 77 25 42
Telefonia. 943 82 05 24
Urkizu, 28



Orain zaldikia (moxala)

ere badugu



Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 10 Barne Medikuntza |
| 2 Zirugia | 11 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 12 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 13 Traumatologia |
| 5 Anlisi Klinikoak | 14 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 15 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 17 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |

Gerra Zibileko gudarixeri omenaldixak

**EJAK GUDARIXERI OME-
NALDIXA EGINDA GOGO-
RATUKO DITTU EIBARKO
BONBARDAKETAK, SUTIA
ETA SUNTSIKETIA**, hain zu-
zen be bonbardaketaren 75. ur-
teurrena beteko dan egunian
bertan, apirillaren 25ian. Miren
Sojok eta Eva Juezek egunera-
ko antolatu dittuenen barri emo-
teko agerraldixa egiñ eben mar-
titzenian: 11.30xetan agintarixe-
ri, gudarixeri, omendutakuen fa-
melixakueri eta beste guztieri
harrerria egingo jakue Untzagan
eta 12.00xetan ikurriña igoko
dabe bertan. Jarraixan, kandela
bat ixotu eta Gerra Zibillian hil-
dakuak gogoratzeko ohorezko
aureskua dantzatuko dabe.
13.00etan, barriz, agintari eta
ordezkari jeltzaliak oroigarria
oparituko detse omendutakueri.
Ekitaldixan, bestiak beste, Iñigo
Urkullu eta Joseba Egibar egon-
go dirala aurreratu dabe. Ekital-
di horrek amaittu eta gero, nahi

dabenak Batzokixan egingo dan
bazkarixan parte hartzeko au-
keria izango dau, alde zuzen
943120616 telefonora deittuta
izena emonda, plazak muga-
tuak dira-eta. Bazkarixaren pre-
ziua 20 eurokoa da.

Jeltzalien berbetan, *"hasieran
ekitaldixa Ego Gaiñen ospatzia
pentsau genduan, botatako
bonba batek bertan 56 lagun hil
zittuala-eta, baiña batuko dan
jendiaren erosotasunari begira
Untzaga egokixagoa zala begi-
ttandu jakun"*.

Datorren asteko ekitaldixaz
gain, gerra sasoiaren gertatuta-
kuaren gaiñeko oroitzapenak
etorkizunian be oihartzuna iza-
tia nahi dabela azpimarratu da-
be eta, horren harira, gertatuta-
kua gogoratzeko plaka bat ipin-
tzeko asmua dake, *"baiña oin-
diok ez da erabagi nun ipiñiko
dan"*. Eta horrez gaiñ, Eibarko
bonbardaketak gogoratzeko dit-
tuan bideua sortu dabe eta ber-



Amuategi Batalloi ezaguna zazpi hillebetian nazionalak geratzeko borrokan jardun eban.

tan herrixa bonbardaketaren os-
tian zelan geratu zan ikusi leike.
Hamar bat miñutuko iraupena
daukan bideua [www.eibargara
tuz.com](http://www.eibargara
tuz.com) webgunian ipiñi da-
be, nahi dabenak ikusteko
moduan.

Bestela, bonbardaketaren 75
urtiak dirala eta antolatu dan
programaziñuarekin pozik da-
guazela diñue, eta ekitaldixak
antolatzeko orduan alkarte dife-
rentiak parte hartziaren garran-
tzixa azpimarratu dabe. Horre-
kin batera, Eibarrek gerra sa-
soian bizi izandakua goguan
eukitzia inportantia begittantzen
jakue, *"historikoki bonbardake-
teri lotutako herrixak beste ba-*

*tzuk izan dira, bestiak beste han
hildakuen kopurua askoz haun-
dixagua izan zalako, baiña Ei-
barko kasuan beste toki batzu-
tan ezagutu ez eben beste fak-
tore bat hartu bihar da kontuan.
Izan be, nazionaleri Gipuzkua
osorik hartzia eta Bizkaian au-
rrera egittia saihesteko burru-
kan jardun eban frentia Eibarren
egon zan. Gaiñera, Euskal Gu-
dalostia eta Errepublikia arma-
mentuarekin hornitzeko biha-
rrian jardun eban hamengo in-
dustriak, hain zuzen be horre-
gaittik zigortu eben horren go-
gor 1937ko apirillaren 25a baiño
lehenagotik etenbarik bonbak
botata"*.



Intxorta aldian gerra sasoiaren erabilittako trintxerak berreskuratu dittue.

**EIBARREN EZ EZE, ELGETAN BE GERRA SASOIA OSO GO-
GUAN EUKIKO DABE ASTEBURU HONETAN BERTAN HASI-
TTA**, bertako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatutako
hainbat ekitalditan. Eurak gogoratzeko dabenez, *"oin dala 75 urte el-
getarrak eta Intxortaren magalera borrokatzera etorritako millaka mi-
liziano eta gudarik, zazpi hillebetian, 1936ko irailletik 1937ko apirille-
ra arte, gerraren aurpegirik gogorrena jasan eben, ankerkerixia hain
zuzen be. Atxiloketak, fusilamenduak, sorgiñ-ehiza, andrazkuen kon-
trako errepresioño basatixa, bortxaketak, derrigortutako biharrak...
Baiña gogorrena da 75 urte pasau ostian be, oindiok iñork ez dabela
barkamenik eskatu"*. Eibarren lez, Elgetan be erresistentziaren eredu

Intxortako miliziano eta gudarixak be goguan

izan ziran eta bertan borrokan jardun ebeneri esker atzeratu zan
nazionalak gure herrixak eta inguruak euren menpe hartzia: *"Matxina-
tuak eta euren aliauk, alemaniarrek, italiarrak eta marrokixak eziñ
izan zittuen Elgetako sektoreko lubakixak gainditu. Mola eta Camilo
Alonso Vegaren tropak behiñ eta barriz porrota jasan eben euren era-
soaldixetan. Militar profesionalen aurrian, gudari eta milizianuen buru-
zagixak zibillak ziran: Felipe Bediaga, Pablo Ugarte, Segundo Olaza-
goitia, Patxo Gorritxo, Felix Casero, Pablo Beldarrain... baiña guda-
riaren eta milizianuen armarik onena askatasunaren irrintzixan siñistia
izan zan"*.

Horregaittik, frente hori erori zala 75 urte betetzen dirala-eta, ome-
naldixa antolatu dabe domekarako, hillaren 22rako *"kolpe faxistaren
ondorixuak jasan zittuenak gogoratzeko"*. 10.30xetan ekingo detse
egitarauari, omenaldixan parte hartuko dabeneri Espaloia Kafe An-
tzokixan harrerria eginda. Omenaldixa, barriz, 12.00xetan egingo da-
be Intxortako Atean (eurixa egingo baleu Espaloian bertan egingo li-
tzake). Jarraixan, Salbadorrera martxia egingo dabe, zibillen fusila-
menduak oroitzeko monumentuan lore-eskintza egitteko. Elgetara
jaitserria, Andoaingo banda republikanuarekin lagunduta egingo da-
be. Eta 14.30xetatik aurrera Espaloian bazkalduta amaittuko dittue
egunerako antolatutakuak.



Jaureguizar-ek zure etxe berria errealitate bihurtuko du Ermuko Aldapa-Berrin

25 urtetik gora etxebizitzak eraikitzen kooperatiba eragimenean.

Ermua erdian oso prezio onen biltzea ahaztu gabeko da. Jaureguizar Gestora de Viviendas-ek kudeatutako ALDAPA-BERRI, S. COOP kooperatiba eragimenezko etxebizitzaren promozio berria.

Aldapaberrin, S. Coop-ek etxe berri bati eskatu dezakezun guztia eskaintzen duzu: ekipamendua, kalitatea eta prezioa. Sektorean 25 urtetik gora jardundako enpresaren berritasunik.

Aldapa Berrin Aldapa kalean dago, herriko erdigunetaren toki lasalenean. Etxebizitzak agunerako erosotasunerako behar diren zerbitzu guztiak dituzte inguruan: hezkuntza zentroak, supermerkatuak edo udal kirologia, beste instalazioen artean.

Aurretik ere ondo komunikatutako ingurua izanda, hemendik gutxiira promozioarekin batera goiko kaleetan lotzeko instalatuko den eskilara mekanikoa ereko errozetaraino heltzeko erantzuna bermatuta dago.

Ingurune edinhobea zure etxe berrirako. Ermua erdi-erdian. Eta garrantziarekin dago: bilatzen zenuen prezioan.



Informazioa:

943 17 40 19 / www.jaureguizar.com

Kooperatibetan adituak

Proiektuak sektorean 25 urteko esperientzia duen Jaureguizar enpresaren kudeaketa bermea du.

Jaureguizar-ek 1987tik dihardu Etxebizitzaren Kooperatiben artean lan egiten, Jaureguizar Gestora de Viviendas elkartearen bidez. Bere zerbitzuak hasieratik hartzen dituzte proiektu hauek, berriz fase guztietarako bermeak eta esperientzia eskaintzen dituen kudeaketa profesionalizatutakoarekin.

Jaureguizar-ek hainbat abentari berrizien sorta eskaintzen dizkie bezeroei, produktuenaren prezioa bermatuz eta, modu horretan, kostuak sumakusitakoa inoiz ganditu ez dezari ziurtatuz eta komunitateei edo kooperatibei aurretik kanpitateak emango zatekela bermatuz bati. Gainera, Jaureguizar-ek ordaintzeko erantzunak eskaintzen ditu, bakoitzaren ostalantze-ahalmenari egokitutakoak. Bere erantzungarritasun eta esperientzia da bermeak onena.

Ute guzti hauetan, Jaureguizar Gestora de Viviendas-ek 800 etxebizitzetatik gora sustatu ditu formula horrekin. Orain berriz errealizatuak diren proiektuen artean daude Gazteloodo S. Coop. eta Artazu S. Coop. antzako Bilbon egindako 236 etxeak. Horiek gain, beste 400 etxebizitza inguru dihardu egiten hainbat herrian beste hainbat kooperatibentzat.

Bizitzera sartzeko moduan

Promozio berrian 6 altuerako eraikin bi aurrekustean dira, 1, 2 eta 3 gelako 50 etxebizitzekin. Den-denek garajea eta trasteroa izango dituzte, eraikin bakoitzetik erosoan heltzeko moduan.

Aldapaberrinren kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioa edinhobea da. Bi logela eta komun biko 65m²ko etxebizitzak, altzari, elektrotresna eta armairu erretatuekin guztiak jantzitako sukaldarekin eta garajea eta trasteroarekin 180.000 euro + BEZa prezioaren bustian biko da.

Prezio oso erakargarrian lasatutako etxebizitzak dira. Babespen Ofizialeko Etxebizitza erakundearen prezioetik gorra. Jaureguizar-ek ahalegin berezia egin du proiektuaren trise guztiak hobetu eta marjinak erotuz, azken kostoa merketzeko.

Etxebizitzaren kalitatea eta ekipamendua dira nabarmentzeko beste elementuetako batzuk: hor ere ahalegin guztiak egin ditu Jaureguizar-ek. Prezioaren barruan altzari eta elektrotresnekin guzti jantzitako sukaldaria ere sartzen da, berriz gainjantzitako armairu erretatuekin batera. Prestazio horiekin, etxea prest duzue bizitzera sartzeko, horrela hasierako gastua gutxienezkotuz.

Gipuzkoan polemika handia sortu du hondakinen kudeaketak. Lurraldean sortzen den hondakin kopuruari eta hau kudeatzeko moduari aurre egiteko, Zero zabor programa osatu zen Gipuzkoan. Ekimenaren berri emateko, Ainhoa Arrozpidek hitzaldia eskainiko du apirilaren 24ean Kultun 19.00etan.

AINHOA ARROZPIDE (Zero Zabor):

“Errausketak ez du arazoa konpontzen, larriagotu baizik”

- Zertan datza Zero Zabor programak?

Zaborra sortzea eragozteko neurri sorta dira Zero Zabor programak. Eredu edo paradigma aldaketa behar dugu. Gaur egungo eredu linealean materialak era arduragabean erabiltzen ditugu. Natur baliabideetara behin eta berriz jotzen dugu material berriak lortzeko. Horiekin osatutako produktuak erabiltzeari utzi ondoren, material hori berreskuratzea beharrezkoa da, dena nahastu eta alferrik galtzen duguz gaur eguneko zaborrekin daukagun arazoa sortuz. Gaur egun ditugun zabortegi kutsakorretan pilatzen dugun zaborraren ondorioek arazo larriak sortzen dizkigute. Horren alternatiba gisa proposatzen diguten errausketak ez du arazoa konpontzen, larriagotu baizik. Erraus-tutakoaren heren bi bertan geratzen dira zepa eta erraus toxiko moduan. Beste heren biek tximiniatik aterata eta ingurumena kutsatzen dute. Ezin dugu jarraitu mundu mugatu batean mugarik edukiko ez balu bezala jokatzen. Zero Zabor eredu ezinbestekoak dira sortzen ditugun hondakin materialak berreskuratzeko sistemak. Modu honetan materialak eskuratzeko ez dago natur baliabideak ustiatzera joan beharrik eta zaborra sortzea eragozten da. Zero Zabor eredu, beraz, eredu zirkularra da. Zirkulua ixteaz gainera, Zero Zabor eredu ezinbestekoa da zirkulua txikitzea. Zirkulua txikitzeak esan nahi du gure ekonomian ahalik eta material gutxienez erabiltzea, beste era batera esanda, materialen efizientzia kontutan hartzea.

- Gipuzkoa polemika handia dago hondakinen kontuarekin: erraustu, atez-ate jasoso... Ze iritzi duzu horren gainean?

Errausketa, tratamendu bat da, eta atez atekoa, biltza sistema bat. Eztabaida erreala ez da hori. Eztabaida da orain arteko esema zabor eta arazo sortzailearekin jarraituko dugun, ala materialak eta hondakinak era arrazional batean kudeatuko ditugun. Zentzuzko erantzun bakarra dago. Zergatik egin gaizki ondo egitea dagoenean?

- Eibarren kontenedore bidez jasotzen dira hondakinak. Nola funtzionatzen du atez-ateko biltzetak?

Labur esanda hauek lirateke ezaugarri nagusiak: Etxebizitza edo famili bakoitzak hondakinak uzteko leku bat dauka. Hemen erabiltzen dena lau posizioko zintzilario bat da. Egun bakoitzean hondakin atal bat aterateke. Astean sei egunetan atal birziklagarriak biltzen dira eta behin bakarrik birziklaezina dena. Sei egun horiek honela banatzen dira: 3 egunetan organikoa (txerrijanaz ezagunagoa), 2 egunetan ontzi-arinak eta behin papeira eta kartoia. Aipatu pixa-oihalak egunero aterateke. Orduetegi bat jartzen da hondakinak ez daitezkeen egun osoan kalean egon. Edonola ere, orduetegira moldatu ezin denerako larrialdigune izenekoak daude hondakinak bertara eramateko. Esaten denaren kontra ere intimitatea babestuta dago. Etxebizitza bakoitzak hondakinak uzteko lekua kode batekin identifikatuta dago eta biltzaileak




ez daki nori dagokion. Kode horrek, norbait nahasten denean inzidentzia jasotzea eta nola egin behar duen irakasteko balio du. Batzuk isunarekin lotu nahi izan dute, baina isuna norbait nahata ari dela ziurtatu ondoren bakarrik jartzen da.

- Hemen, Debabarrenan, edukiontzi marroia ipini dute orain dela denbora gutxi (hondakin organikoentzat). Zer deritoxo?

Sistema bat edo bestea hautatzean galde-tu behar dena da ze helbururekin jarri duten. Atez Atekoa jartzen ari diren lekuetan %80ko gaikako biltza hilabete gutxitan gainditzeko helburuarekin egiten dute. Zein da 5 edukiontziarekin bete nahi duten helburua? 35 baka-rik? Zergatik? Zergatik uko egin %80ari? Eta %80 lortuko dutela esaten badute, hainbat galdera: zertan oinarritzen dira hori lortu-ko dutela uste izateko? Zein esperientzitan? Ze epetan espero dute lortzea? Hori dena neurtu ahal izango da eta asmoak betetzen ez badituzte, suposatzen da akatsa onartu eta zuzenduko dutela. Ezta?

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com



JONE ALZAA FERNANDEZ apirilaren 14an hil zen, 48 urterekin

*“Adiskide bat bazen
orotan bihotz-bera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena”*



EIBARKO LAGUNAK



Danori helduko jaku momentua, ez dakagu ihesbiderik. Bizitzia amaitzian, hiltzian, halanda be, gure gorputza hor geratzen da eta zeozer egin bihar da berarekin: erraustiak lurra emotiari terrenua irabazten dihardu. Gure herriko kanposantuan be, aurreko astian hainbat nitxo hasi ziran kentzen bertako espaziuma egoera barrira egokittu eta hainbat kolunbarixo ipintzeko.

Hiltzen zarenean: erraustu edo lurra emon?




JOSE MANUEL SEGUÍN
40 urte
soldadoria

Pentsatzen dot gorputza erraustia erabiliko dotela, baiña oindiñok ez dot serixo planteatu. Nere kasuan hiletia egin, organuak emon eta erraustia egingo dotela uste dot.


ANGELES MINCHINELA
76 urte
etxekoandria

Gizona oin dala urtebete hil jatan, eta seme-alabak erraustia nahi bazeben be, nik ez. Oin dala urte asko etorri nintzan Naparruatik eta nere ama lurperatuta daguan hillobi berian nahiko neban lurra hartzia.



FLORINDA TABOADA
67 urte
jubilaua

Oindiñok pentsau bihar doten zeozer da. Oin dala 3 urte semia hil jatan eta erraustu egin genduan. Begittantzen jata erraustia higienikuagua dala, lurra emotian zizariak eta halakuak egoten diralako.



A P I R I L A

					1		
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30							

M A I A T Z A

	1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13	
14	15	16	17	18	19	20	
21	22	23	24	25	26	27	
28	29	30	31				

E K A I N A


				1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10	
11	12	13	14	15	16	17	
18	19	20	21	22	23	24	
25	26	27	28	29	30		



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairvartea
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com
www.etakitto.com

*Egin zaitez
...eta kitto!ko
bazkide!*



2 0 1 2 k o
u d a b e r r i k o
k u l t u r
e s k a i n t z a

...eta kitto! Euskara Elkarte.

Apirillaren 2xan presentatu eben ekaiñaren 25ian amaittuko dan errentaren kanpaiña Helena Franco Ogasun diputauak eta Xabier Olano Ogasun zuzendarixak. Presentaziñuan emondako datuen arabera, foru saillak 391.000 deklaraziño jasotzia espero dau eta horretatik gehixenak (312.000) zergadunerir dirua bueltatzekuak izango dirala dake aurreikusitta. 2011ko Errentaren kanpaiñan danera 351.000.000 euro bueltau biharko dabela dake kalkulata. Ogasunari dirua-bueltatzia emaitza modura eukiko daben 79.000 aitorpeneri esker, barriz, zergadunak Haziendari 131.000 euro bueltatzia espero dabe. Eta PFEZ edo gaztele-razko IRPF-ian egin dittuen kanbixueri esker, Foru Ogasunak 69.458.497 euro batzia kalkulau dabe. Bestalde, eta ekitaldi biren ostian, Ondarearen Gaiñeko Zerga aitortu biharko dabe aurten 5.239 lagunek, hain zuzen be 1.000.000 euroko edo hortik gorako ondaria daken herritar-rrak (lehenago gitxieneko ondarea 404.000 eurokoa zan). Arlo honetan egon diran kanbi-



Ogasunarekin KONTUAK EGITTEKO SASOIA

xuak eta krisixak eraginda beste urte batzuetan baiño holako aitorten gitxiago jasoko dittue, beraz (2008xan 13.808 izan ziran). Halanda be, zergadunak batzabeste gehixago ordaindu-

ko dabenez (zergadun bako-
txeko 5.554 euro jasotzia espe-
ro dabe, oin dala urte biko eki-
taldiko 3.256 eruoko batzabes-
tekuaren aldian), diru-gehixago
batzia aurreikusi dabe Ogasun

arduradunak, 29.095.793 euro
hain zuzen be. Ondarearen
gaiñeko zerga modu bittara,
paperez edo internetez presen-
tatzeko aukeria dago (eta ez
mekanizauarekin batera).

KONTUAN IZAN BIHARREKO FETXAK

**Apirillaren 11tik
maiatzaren 4ra** bittartian:
autolikidaziñorako
proposamenak onartu
edo errefuxatzia.
**Apirillaren 16tik
ekaiñaren 8ra** bittartian:
aitorpen mekanizaua
presentatzeko
hitzordua eskatzia.
**Apirillaren 17tik
ekaiñaren 25era:**
aitortpena Ogasuneko
buleguan bertan egittia.

APIRILA

Apirilak 24, martitzena

Harixa Emoten literatura tertulia.
Karmele Jaioren "Musika airean"
liburua. 19.00etan ...eta kitto!-n.


MAIATZA

Maiatzak 4, barixakua

Illunabarrian **Bertso-afaria:** Irun
eta Eibar arteko desafioa. 21.00etan
Bide Alde elkarte gastronomikoan.

Maiatzak 8, martitzena

Euskararen transmisioaren inguruko
II. Mintegia.
9.00etatik 17.45etara Portalean.



Maiatzak 12, zapatua

Donostiara egun **pasa Berbetan**
egitasmoko berbalagunentzat.

Maiatzak 13, domeka

Herri Urratsera autobusak (Senpere)

Maiatzak 16, eguaztena

Ipurterre ipuin lehiaketako **sari
banaketa.** 10.00etan Unibertsitate
Laboralean. Tor magoaren ikuskizuna.

Maiatzak 19, zapatua

Tantanez tantan, Euskaraz Bizi!
euskararen aldeko ekitaldia. 13.00ean
Urkizuko iturrian urez beteko da
gantxilla eta esku esku eramango
da Untzagaraino.



Maiatzak 19, zapatua

Gurasoak Berbetan-eko
berbalagunentzat egun **pasa Arraten.**
Guraso eta umeentzat jolasak.



EKAINA

Ekainak 2, zapatua

Mintza Eguna Santurtzin,
Berbetan-eko berbalagunentzat.

Ekainak 3, domeka

Ibilaldia autobusak (Trapagaran)

Ekainak 17, domeka

Euskal Jaialdia,

herri kirol
erakustaldia.

19.30etan Untzagan.

Ekainak 17, domeka


Araba Euskaraz-era

autobusak (Bastida)

Ekainak 23, zapatua


San Juan sua, 23.30etan Untzagan.

23.00etan Dantza Garaikidearen
dantza-ikuskizuna.



...eta horrez gain:

Barixakuero ...eta kitto! astekaria
Hilero Txikitto! umeen aldizkaria
Astero Berbetan mintzapraktika taldeak
Itzulpenak eta diseinu lanak
www.etakitto.com



NORA juan bihar da?

Eibarko Haziendako bulegua **Arragueta kaleko 2xan** dago eta bertan, bestiak beste, errenta mekanizaurako zerbitzua eskintzen dihardue (astelehenetik zapatara, 08.00etatik 14.00xetara). Bestela, herritarreri arreta astelehenetik barixakura bittartian eskintzen dabe, 08.30xetatik 14.00xetara. Hortik aparte, Gipuzkuako egoitza nagusixa Donostian, **Errotaburu kaleko 2xan** dago eta Eibarko buleguaren ordutegi berari jarraituta eskintzen dittue zerbitzu berberak.

Zelan PRESENTAU leike deklaraziñua?

- AUTOLIKIDAZIÑORAKO PROPOSAMENA: Martxuaren 29xaz geroztik eta apirillaren 17ra bittartian, Gipuzkoako Ogasunak 230.143 proposamen (aitorpen guztien erdixa baiño gehixago) bialduko dittu, apurka-apurka, korreoz. Etxeko buzoira noiz ailllegauko dan zaiñ egon barik be, www.gipuzkoa.net/ogasuna webgunian eta euren buleguetan (Eibarren, Arragueta kalia) be eskuratzeko aukeria dago. Jasotako proposamenarekin ados izanez gero, telefonoz (902 100 040 zenbakixan, 08.00etatik 20.00etara) edo internet bidez (www.gipuzkoa.net/ogasuna) onartu biharko da. Horretarako epia maiztaren 4ra bittartian egongo da zabalik. Iaz proposamenen gehixenak, bialdutako guztien %86,4 onartu zi-

ran. Halanda be, bialdutako guztiak onartuko ez dirala jakin badakixe eta 110.000 deklaraziño buleguetan tramitauko dirala aurreikusxi dabe

- MEKANIZAUA: modalidade hori jarraituta egin nahi dabenak, aldez aurretik bulegora juateko hitzordua eskatu biharko dau, telefonoz (902 100 040) edo internet bidez (www.gipuzkoa.net/ogasuna).

Emondako egun eta orduan bulegora juanda, bertan lagunduko detse errenta aitortpena egitten.

- INTERNET BIDEZKUA: holan egin nahi dabenak, lehenago adierazittako webgunian bertan topauko daben laguntza-programia erabilitta, internet bidez bialdu leike deklaraziñua. Norberak zuzenian egitteko aukeria dauka edo, bestela, nahixago izanez

gero, horretarako gertu daguazen 500etik gora ordezkari profesionale-tako edozeiñen bittartez be bidaltzeko aukeria badago.

- PAPERIAN: bereziki horretarako daguazen inprimakixak bihar dan moduan bete eta presentautu be egin leike deklaraziñua.



Deklaraziñua modu mekanizavan presentau nahi dabenak horretarako aukeria dauka zuzenian bulegora juanda, beti be aurretik hitzordua hartuta.


Haziendarekin be EUSKERAZ

Azken urtietako martxiari jarraituta, aurtan be deklaraziñua euskeraz egin nahi daben zergadunak horretarako aukeria izango dabe, aukeratzen daben modalidadia edozeiñ izanda be: autoli-



kidaziño proposamena jasodabenak ontzat emoteko telefonua edo internet erabili leikie eta bixetan euskeraz jarduteko aukeria eskintzen dabe; mekanizaua buleguetan egitten da, hitzordua aurretik eskatuta eta hantxe be, euskeraz berba egiñ ezkeru, bulegoko bihargiñak euskeraz beteko dau errenta aitortpena; batez be baimendutako erabilzailiak eta finantza-erakundiak erabiltzen daben bide telematikuari jarraitu ezkeru, euskeria erabili ahal izateko espreski hala nahi dabela

azaldu biharko dabe; eta nork bere bidetik egitten daben kasuan, inprimakixa estankuetan erosi leikie edo internetetik jaitxi. Inpresuak elebidun diranez, baktotxaren esku geratzen da zeñ hizkuntza aukeratu.

Bestalde, Foru Aldundixak erakundiarekin euskera hutsian komunikau nahi daben zensua egitten hasteko aprobetxauko dau errentaren kanpaiñia. Izan be, errenta aitortpenaren kanpaiñiari esker 400.000 gipuzkuarregana ailllegatzia espero dabe.



TEEN-
AJEA



Alesander Roblenok gustoko du egiten duena eta nabari zaio. Enpresa berria sortu du Urrat Bat programaren barruan: TIDELABS. Lehen pausoak ematen dihardu Alesanderren enpresa berriak, baina lortutakoarekin pozik dago.

ALESANDER ROBLEÑO (Tidelabs):

“Krisiak aukera berriak eskaintzen dizkigu”

- Zer da Tidelabs?

IT aholkularitza da, web eta telefono mugikorretarako garapen zerbitzuak ere eskaintzen dituena. Enpresei teknologia berriak eta hauek eskaintzen dizkiguten aukerak hurbiltzen dizkiegu.

- Nolako izan da enpresaren sortze-prozesua?

Uste baino luzeagoa, merkatuaren aurretiko ikerketa eta prozesu administratiboek hilabeteak iraun dute-eta. Urrats Bat programaren barruan sortutako enpresa da. Hasieratik aholkuak eman dizkigute, eta modurik on eta azkarrenean eraman gaituzte. Eman beharreko pausoak zeintzuk eta noiz izan behar diren esanez lagundu gaituzte. Halako programak beharrezkoak dira berez gogaikarriak diren izapideak arintzeko.

- Nolako da enpresaren hasierako martxa?

Ona eta txarra. Lehenik, bezero-zorroa lortu behar izan dugu: ez da erraza. Bezero bat lortzean (gure sektorearen ezaugarriengatik, emaitzak ikusita eta errentagarritasunarekin), berriz deitu eta bezero-zorro egonkorra lortuta ere, zaila da eurengana heltzea.

- Ausarta izan behar zara krisi sasoiaren enpresa sortzeko? Ala krisia horretarako aukera da?

Enpresa bat sortzeko ausardia pixka bat izan behar da, egoera zein den kontuan izan gabe. Zer egin nahi duzun argi eduki behar duzu eta produktu ona lortu. Egiten duzun horretan sinestea eta lehen oztupoan ez geratzea beharrezkoa da. Egungo egoera ekonomikoa dagoena da eta inguruko zirkunstantziak jokoaren arauak dira. Krisiak hainbat arlotan kalte nabarmena egin dugu, baina aukera berriak ere eskaintzen dizkigu. Egoera kontuan hartuta hainbat negozio garapen plan eta estrategiak sortu ditugu, eta nahiko ondo doaz.

- Zu zaude Tidelabs-eko gidartzan. Pentsatzen zenuen bezalako izatea da enpresa baten buru izatea?

Ez, oraindik hobea da, asko disfrutatzen dut egiten dudanarekin, produktu ona daukagu, oso landua. Kalitatezko zerbitzu bat ematea, enpresen emaitzak hobetzera zuzendua dagoena poztekoa da maila profesional eta pertsonalean. Gustoko dudaren sektorean egiten dut lan, egin nahi dudana egiten; momentuz, nahi dudana lekuan, maila lokaleko enpresentzat proiektua garatzen dihardugulako, Eibarren, eta lehen fasetik ondo funtzionatu du.

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

Edeibar, Peruko kirol-eskola gorriurdina

Peru ipar-mendebaldean dagoen hiria da Piura. Herrialdeko hiririk jendetsuenetarikoa da eta Abegitasunaren Hiria esaten diote, bertako biztanleek oso ondo hartzen dituztelako bisitariak. Abegitasun horrek, hala ere, ez du saihesten herritar askok duten pobrezia, batez ere kanpoaldean, nekazari inguruetatik joandako inmigrazioaren ondorioz.

PIURAKO HAURTZARO ETA GAZTETA-SUN ARAZOEI IRTENBIDEA BILATZE-KO, guraso talde bat, hauen seme-alabek eskualdeko beste gazteekin batera euren helburuak lortu eta foballean etorkizun opa-roa izan ditzaketenei laguntzeko, batu eta Piurako Eibar Kirol Eskola (EDEIBAR) sortu zuten 2005ean Egoaizia eta Eibar Kirol Elkartearen laguntzarekin. Honen bitartez, aisialdirako aukera osasuntsua eman nahi zaie, foballaren bitartez, 7 eta 18 urte bitarteko baliabide gutxiko eta Piurako auzo marjinaletako gaztetxoek.

Julio Cesar Bermejo da unitate teknikoaren koordinatzailea (Wilmer Federico Bermejo da presidentea) eta, bere berbetan, Piurako Country Clubean foballean jokatzeko



Txapelketa Experimentaleko talde ofiziala. Ezkerrean, zutik, Beatriz Fragua kooperantea.

ko batzen ziren gazteen ekimenez sortu zen EDEIBAR. Orduan, Egoaziaren bitarteko lanaren bidez, Eibar KEk kirol materialak eskaini zizkion proiektuari.

Antolatutako kirol-ekintzen birtartez, ekimenean parte hartzen duten neska-mutilek entrenamenduak egiten dituzte eta txapelketetan parte hartzen dute. Horrela, kirol arloaz gain, hainbat balore sendotzen dituzte gaztetxoek: ikasketetan zuzen aritzea, ekintzetara agertzeko konpromezua hartzea, inplikazioa, eta abar.

Kooperantea kirol-eskolan

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarekin bat dabil elkarlanean Egoaizia eta, horren ondorioz, Beatriz Fragua EDEIBARen laguntzen egon zen joan den udan. 18 eta 25 urte bitarteko,

Elkarlanari esker, kirola egiteaz gain, gazteek hainbat balore sendotzen dituzte

eta 10 eta 13 urte bitarteko nesken taldeekin egin zuen beharra Beatrizek Piuran, eta berak dioen bezala, "nire ezagutza profesionalak praktikan ipintzeaz gain, beste errealitate bat ezagutu eta burua zabaldunuen".

EDEIBARek neska eta mutilen arteko berdintasuna bultzatzen duela azpimarratzen du Beatrizek eta, bestetik, eskolan ez dela inor baztertzen foballean ona edo txarra izateagatik. "Klasea kontuan hartu gabe, pertsona guztiak nahastu eta denek aukera berriak edukitzea da oinarria".

Beatrizentzat harrigarria zen txartela ordaintzeko dirurik ez eta urrutitik korrika entrenatzera zihoazen neskatoak ikustea, "Ei-barren kamiseta defendatzeko".



Egoaziako Maixabel Albizu eta Neli Arretxe Piuran izan dira berriki.

GAZTEMENUA
barixaku gauetan
txotxa eta garagardoa barne

DENA **18 €**
BARNE

Entsalada mixtoa edo Bakailao tortila edo Bakailao konfitatua
.....
Txerri-saiheskia parrillan edo Ollasko erreka parrillan edo Okela gisatua
(Hirurak patata goarnizloarekin)
.....
Gaztaia, intxaurrek eta membrilloa
Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

Otaola etorbidea, 3 - atzea
(Hiper Eroskiren alboan)

Iruki
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com



GREMIOEN GIDA

NEW 2008

ANTENAK

BALATZ S.L.

Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94


Ego Gain z/g

Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ARKITEKTOAK



AROTZAK


IÑAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

Iraner
ateak EDER aroztegia



Ateak, horma-armairuak, tarimak...
Burdindegiko artikulua salgai
Giltzen kopiak
Ebanisteria

Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)
943-174925 iranercb@gmail.com



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA



GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaita eta
proiektu elektrikoak



Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

GARBIKETAK


Limpieza
Multiservicio
Eibar

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171



Barrena, 21 - 1. F




TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta
mantenimendua

HODI-LIBRATZEAK



- Hodi-libratzeak
- Saneamenduen garbitzea
- presio handiko makinariarekin
- Ur ateratzea ufalen ondoren

www.desataxcos.com
LARRIALDIETARAKO (24 orduan): 673 304 222

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK

IGELTSERITZA



CAMILO ALVAREZ OROKORREAN

– Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)

– Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104



IRAZABAL

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitaín Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia

ERREKATXU, 3^{an}
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskalnet.net
eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK



AIXA

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



Pinturas
Elias e Hijo, S.L.

**pintura eta estaldura
mota guztiak**

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97



MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO
dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELE...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guztiako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztiak giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

Maiatzaren 4ean bertso-desafioa egingo da Bide Alde soziedadean. Eibar eta Irungo taldeak elkarren aurka jardungo dute bertso-afarian. Aimar Goenaga eta Jon Mikel Mujika izango dira Eibarko ordezkariak, eta Manu Goiogana eta Aitor Errazkin Irungoak. Sarrerak ...eta kitto! Euskara Elkartean 19 eurotan daude salgai (bazkideek 17 euro).

Tori!

Mugakoen arteko BERTSO-DESAFIOA



aimar goenaga (EIBAR)

“Ondo pasatuko dugula seguru nago”

- Irungoen kontra jardungo duzue. Ezagutzen duzu Irun?

Ez. Tarteka-tarteka pasatu izan naiz handik, Eibar KEren foball partiduak ikustera eta horrela, baina gehiago ez.

- Eta aurkariak, ezagutzen dituzu?

Bai. Manu Goiogana gurekin dabil hemengo bertso-eskolan, hemen dagoelako lanean, baina bestea ez dut ezagutzen. Manu, behintzat, oso ondo moldatzen den bertsolaria da.

- Nola ikusten duzu lehia?

Soziedade baten markoan eginda, lehiaren kontua pixka bat baztertzen da eta kalera begira bidaltzen den irudia da batipat. Ondo pasatuko dugula seguru nago, hori bai. ‘Pike’ honekin txantxarako aukerak egongo direla pentsatzen dut.

- Zurekin Jon Mikel Mujika ibiliko da. Nolako bertsolaria dela esango zenuke?

Tenple handiko bertsolaria da, baina ondo kunplitzen duena.

- Etxeko taldea izango zarete. Abantaila ala desabantaila da zuentzat?

Jendea zertara datorren arabera. Barreak botatzera badator, seguru aski abantaila izango da, gu erosoago iritsiko garelako. Ikusleak zita lehia gisa hartzen badu, beste kontu bat izango da.

- Horrelako desafio batean aurretik parte hartu duzu?

San Andres bezperan Eibarko bi lagunekin Debabarreneko beste hiru lagunak kontra egin genuen desafioa. Publiko aldetik atentzio berezia egoten da horrelakoetan eta bertsolariak eskertu egiten du.



manu goiogana (IRUN)

“Ez dut espero inolako ‘hooliganismorik’”

- Eibarkoen kontra egin behar duzue. Ezagutzen duzu Eibar?

Aitorrek ez, baina nik bai, Eibarren bizi bainaiz. Ez dut gehiegi ezagutzen, oinarrikoa: Kultura, Gaztetxea... Bertso-eskolan komentatu genuen: “Egingo dugu Eibar-Irun desafioa?”, eta horrela sortu zen lehia.

- Aurkariak ezagutzen dituzu, beraz.

Bai. Aimarrek espero ez dituzunak botatzen ditu, edozein gauzarekin irten daiteke. Demaseko ateraldiak ditu eta gehienak bikainak. Asko arriskatzen du, baina jendeari gustatu ez arren ere arriskatu egiten du. Jon Mikel, ostera, zuzenagoa da. Beti konplitzen du eta, normalean, arrazoi on batekin.

- Zurekin Aitor Errazkin ibiliko da. Nolako bertsolaria dela esango zenuke?


Oso ondo egiten du bertsoetan. Nahiko konplettoa da, eremu gutxietan dabil ondo eta gutxitan egiten du huts. Irungo bertsolari onenetsuenetariko bat dela esango nuke eta berarekin ondo moldatzen naiz.

- Kanpoko taldea izango zarete. Abantaila ala desabantaila da zuentzat?

Ez pentsa, etxean kantatzen dugunean ere... Bertsozaleak oso zuzenak dira eta, etxekoak zein kanpokoak animatzen dituzte. Ez dut ‘hooliganismo-rik’ espero.

- Horrelako desafio batean aurretik parte hartu duzu?

Bai. Irungoekin Lasarte eta Lesakakoen kontra ibili izan naiz. Giroaren arabera, desafio bakoitza ezberdina da.




Azken aldian Klub Deportiboko mendiko taldekoek egin dituzten ekintza berriez aparte (kirol eskalada, arroil jaitsiera, umeen irteerak, kobetara etabar) eta lehenagotik egiten zituztenetik aparte (mendi trabesiak, Pirinioetara irteerak, Picos de Europa...), hiru urteko proiektu erakargarria antolatu dute: Euskal Herriko Zeharkaldia. Aurten hasi eta 2014an amaituko duzuna.

Proiektuaren muina Euskal Herri osoaren zeharkaldia mendebaldetik ekialdera egitea da. Bizkaiko eta Burgosko probintziaren mugetan hasita (Los Tornos-eko mendatean), eta 400 km oinez, 19 etapatan egin ondoren, Euskal Herriko sapaian amaituko dute zeharkaldia, Hiru Erregeen Mahaian (2.448 m). "Euskal Herriko mendirik ezagunetara igotzeko aukera izango dugu: Zalama, Kollitza, Ganekogorta, Gorbea, Anboto, Aizkorri, Saioa, Adi, Ezkaurre, Hiru Erregeen Mahaia... eta beste tontor ez hain ezagunetara, baina agian interesgarriagoak izan daitezkenetara. Zeharkaldia, batipat, gure lurreko mendilerro nagusietatik zehar doa gehienbat. Bere geografia ezagutuko dugu txori begiz, gure gainetatik lurren ikuskizunik onenak izango ditugu eta txoko ezin hobek ezagutzeko aukera. Dolmenak, tumuluak eta menhirak edonon daudela ikusiko dugu", diote Klub Deportiboko antolatzaileek. Beraz,

mendian oinez egiten kirol osasungarriaz gozatzeaz aparte, gure lurraren ezagutza handitu ahal izango dute parte-hartzaileek eta oroitzapen ahaztezinak eurenganatu.

Aurten sei etapa

Lehenengo sei etapak 2012-an egingo dituzte, Los Tornos-eko mendatean hasi eta Gatzagako mendatean amaituta. Etapa amaierak honako herrietan izango dira: Balmaseda, Sodupe, Areta, Orozko eta Ubidea. Hurrengo sei etapak, bestalde, 2013an egingo dituzte, Gatzagatik Belateko mendateraino joanda. Etapa amaierak Arantzazu, Otzaurte, Lizarrusti, Lekunberri eta Beintza-Labaien izango dira. Azken zazpi etapak 2014an egingo dituzte, Belateko mendateatik urten eta Hiru Erregeen Mahaian amaitzeko. Horko etapa amaierak Eugi, Aurtiz, Hiruberri, Otsagi, Isaba eta Zuriza izango dira. Antolatzaileek diotenez, "gazteak eta nagusiak animatu nahi ditugu. Etapa zailenak adi-adi joko



Euskal Herria mendiz-mendi gozatzeko

ditugu, parte-hartzaileen gaitasun fisikoa kontuan hartuta. Etapa luzeak eta gorabehera handikoak direnean, esaterako, bide alternatiboak prestatuko ditugu. Horiek distantzia motzagokoak edo mendi jakin batzuetara igotzeko egingo dira, baina etapen funtsa eta izarari eutsiz. Gure mendi irteeretan ohikoa denez, beharrezkoa den azpiegitura osoa izango dugu. Edozein ezbehar ekiditeko asmoz, gainera, klubeko partaideek etapa guztiak egin dituzte alde zurretik". Klubeko sailekoek beharrezko

19 etapak 2012, 2013 eta 2014 urteetan banatuta


mapak, testuak euskaraz eta gaztelaz eta irteeraren perfila eskainiko dizkiete izena ematen duten guztiei. Hala nahi duten guztiek mendizaleen web orritik track-a deskargatu ahaliko dute. Autobusak irteerara eramango ditu parte hartzaileak eta amaieran jaso. Mendizaleek ez dute aldatzeko arropa eta bazkaria gainean eraman beharko: "Horrela arin-arin joango gara. Klubeko partaide asko eta esperientzia handikoak izango gaituzue alboan, babesa eskainiz horrelakorik behar izanez gero".

Izena emateko aukera

Kontu handiz landu dute dena eta beharrezko azpiegitura prestatu: "Falta den bakarra jendea animatzea da, gorputza pixkat landu eta gure lurraz gozatzeko prest egotea". Proiektu ikusgarri horrekin gozatu nahi duenak astelehen, eguazten eta barixakuetan pasa daiteke, 19,30etatik 20,30-etara Deporreko bulegoetatik edo 943-201904 telefono zenbakira deitu.

ETAPA	DATA	IRTEERA	AMAIERA	GARAIENA	LUZERA	GORABEHERA	DENBORA
1a	Maiatzak 5	Los Tornos	Balmaseda	Zalama (1.336 m)	28,4 km	1.579 m	9'0h
1b	Maiatzak 5	Los Tornos	Balmaseda	Burgueño (1.043 m)	16,8 km	1.043 m	5'0h
2	Maiatzak 19	Balmaseda	Sodupe	Espaldaseca (698 m)	17 km	905 m	5'0h
3	Ekainak 9	Sodupe	Areta	Ganekogorta (998 m)	19 km	1.422 m	6'0h
4	Uztailak 7	Areta	Orozko	Jesuri (749 m)	13,2 km	812 m	4'0h
5a	Irailak 29	Orozko	Ubidea	Gorbea (1.481 m)	27,7 km	1.930 m	8'0h
5b	Irailak 29	Orozko	Ubidea	Oderiaga (1.233 m)	25,9 km	1.444 m	7'0h
6a	Urriak 20	Otxandiano	Gatzaga portua	Anboto (1.331 m)	25,5 km	1.537 m	7'0h
6b	Urriak 20	Otxandiano	Gatzaga portua	Orisol (1.131 m)	22,1 km	850 m	5,5h


Zeharkaldi osoa Hiru Erregeen Mahaian amaituko da 2014an. Goiko koadroan, aurtengo sei etapetako datak eta ezaugarriak.



Eskubaloiko kadete mailako finalak Ipurua kiroldegian


**TEKNIKER EIBAR ESKUBALOIAK
IRUNGO BIDASOAREN AURKA JO-**

KATUKO DU GAUR, 20.00etatik aurrera, kadete mailako Euskadiko txapelketako fase finalaren bigarren partiduan. Aurretik Zarazpe Pulpo eta Tolosa izango dira, nor baino nor, azken hauek ere Ipurua kiroldegian, eszenategi horrek hartuko baitu lau talde horien arteko ligaxka gaurtik domekara arte. Eibartarrek bihar 16.30etan jokatuko dute Pulporen aurka eta etzi 11.45etan Tolosaren kontra. Txapelketako lehenak bakarrik lortuko du Espainiako Txapelketako sektore faserako txartela. Bestalde, finalarekin bat eginda, Toni Gerona Bartzelonako harrobiko taldeen koordinatzaileak clinic-a eskainiko du Portalean zapatu goizean, 10.30etatik 13.30etara, bi zatitan banatuta, sarrera libreka dela.



Bihar, 17.00etan, Hierros Anetxe sei puntuko aldea gainditzera

ERRUGBIKO ESPAINIKO LEHEN MAILAKO TXAPELKETAKO FINALERDIAN, Isasaren mutilek 22-16 galdu zuten Madrilgo Ingenieros-en eta alde hori gainditu beharko dute bihar Unben jokatuko den bueltako neurketan finala jokatzeko. A Coruñaiko CRAT izango




Jokin Garcia lesio larria izan du.

dute zain final horretan. Madrilen jokatutakoak berri txarra ere izan zuen, Jokin García iraupen handiko lesioari egin beharko baitio aurre: tibia eta peronea apurtu zituen taldearen prestatzaile fisikoak. Kanporaketa ez dago argi noren alde joko duen eta zaleek zeresan handia izango dute horretan.

Olaitz Rodriguez onena izan zen Ezoziako bolatokian


**HIRU-TXIRLOKO GIPUZKOAKO
TXAPELKETAKO HIRUGARREN
JARDUNALDIKO** onena izan zen

Asola-Berriko bolaria, bost txirlo botata. Lau txirlo etzatea lortu zuten beste bost bolarik, tartean Ganix Rodríguezek. Lasturko bolatokian jokatutako 4. jardunaldian San Migueleko Imanol Osoro nagusitu zen eta, sailkapenari dagokionez, Sergio Rodríguez eibartarra da nagusi, 14 txirlorekin; hiru txirlora dago San Migueleko Javier Osoro.



Otxoa Memoriala Pérezentzat

FRANCISCO PEREZ-EK HIRU LAGUNEN ESPRINTEAN NAGUSITU ZEN Urkizuko helmugan eta Otxoa Memoriala bereganatu. Isidoro San Justo taldeko txirrindulariak eta ihesaldiko lagunek minutu eta erdiko tarteak kendu zioten tropel nagusiari. Guztira 64 kadete helmugaratu ziren eguraldiak bereziki gogortu zuen lasterketa.



Eibarko neskak Gasteizko torneoetan

EIBAR KE-KO NESKEN TALDE BATEK GASTEIZ CUP torneoaren zortzigarren edizioan hartu du parte eta Kopa torneo bereganatu zuen, fase horretako partidu guztiak irabazita. Miren San Martín, Amaia Domínguez eta Nekane Cantero kapitaina izan ziren jokalari onenak. Eibartarrek Intxaurdi (2-0), Bergara (2-1) eta Irun Artia (3-0) menperatu eta gero, Gasteiz Cup (3-0) kanporatu zuten finalerdietan eta Bergarari (2-0) irabazi zioten finalean.

Bestalde, San Prudentzio torneoko 8. edizioan, Urkiko talde bien artean bakarra osatu eta aurkeztu zen ekipoak 5. postuan amaitu zuen Euskadiko 24 onenen arteko txapelketa. Guztiak lan bikaina egin bazuten ere, Ainara Juaristi nabarmendu zen, defentsa izanda ere, lau golekin taldeko goleatzaile nagusia.

Eibar-Palenzia, etzi 18.00etan

PARTIDU GARRANTZITSUA IZANGO DA ETZIKOA Eibar KE-entzat promoziorako sailkapena lortzeari begira. Palentziak, beheko postuetatik ihesi, punturen bat lortzen ahaleginduko da.

Domekan Waterpolo Navarra talde handia Orbean

ESTATUKO WATERPOLOAREN IKURRETAKO BAT IZANGO DU BISITARI URBAT-URKOTRONIK-EK etzi, 15.00etatik aurrera. Neurketa zaila izango da eibartarrentzat, azken asteburuan ere Askartaren aurka Leioan jokatutako partiduan hartutako errepasoaren ondoren. Aurretik Tximistarri, Waterpolo Donosti eta UPNA kanpoan laga eta gero, lehiaketaren bigarren faseko bere multzoko aurkariak goi mailakoak dira: Waterpolo Navarra eta Leioa Askartzarekin, Portugaleteko Náutica. Horren adibide, asteburuko bizkaitarren kontrako 13-4koa izan zuten.

Aspek jaialdia antolatu du Astelenan

DOMEKA ARRATSALDEKO PILOTA JAIALDIA honako hiru partiduek osatuko dute: hasteko, Merino eta Mendizabal III.aren arteko buruz-burukoa;


partidu nagusian, Retegi Bi eta Pascual Idoate eta Barriolaren aurka; eta amaitzeko, Apeztexea eta Ongayren arteko azken buruz-burukoa.



Barriola eta Xala, Irujorekin batera, buruz-buruko txapelketa nagusiko eskilara berean jardungo dute aurtan.

Miguel Onaindia puntista handia izandakoa hil da Tijuanan

AURTEN 90 URTE BETEKO ZITUEN MIGUEL ONAINDIA puntista handia Barixaku Santuan hil zen Tijuanan. Mexikoko hiri horretan bizi zen bere kirol ibilbidea bertan amaitu zuenetik, motel bat ipini eta ostalaritza jardunean lan egiteko. Isasi kalean jaiotako aurrelariak 1938an debutatu zuen Tangerren, 16 urterekin, eta 1957an laga zion jokatzeari. Atzelari postuan ere jardun zuen behin baino gehiagotan, enpresak hala eskatzen zionean. Kermen handikoa zen eta errebesa izan zen bere dohai nagusiengatik. Tangerren hasitako bideak La Habanan, Mexiko hirian eta Tijuanan izan zuen jarraipena. Gurera berak *“nahi baino gutxiagotan”* etorri bazen ere azken urteetan, *“Eibar inoiz ez zuela ahaztuko”* zioen elkarrizketako batean. Beste kirolari handi batek laga digu.



Onaindia Rocio Durcal abeslariarekin. Goian, Cantinflas aktorearekin.

13 eibartar Mendaroko mendikoan

GUZTIRA 24 KILOMETRO ETA 1.350 METROKO DESNIBELA DUEN PROBAREN bigarren edizioan, Imanol Goñi izan zen irabazlea gizonetzakoetan (1h53'48") eta Maite Maiora emakumezkoetan (2h20'41"). Azken honen atzetik sailkatu ziren Mendaron parte hartu zuten hamahiru eibartarrak: Maiorarengandik sei segundora helmugaratu zen Ibon Vega, 27. postuan; 41.etik 43.era sartu ziren Juan Ramon Rodríguez, Igor Fernández eta Raul Fernández; Edu Uribe 62. postuan sailkatu zen eta 66.etik 68.era sartu ziren Eduardo De Miguel, Igor Azurmendi eta Zigor Iriarte. Hiru ordu baino gutxiago behar izan zuten denek.





Mendaron parte hartu zuten eibartarren artean, goian: Edu De Miguel, Jose Luis Baz, Zigor Iriarte eta Aitor Zubikarai. Behean, Igor Azurmendi, Raul Fernández, Ibon Vega, Iosu Elejalde eta Edu Uribe. Falta dira Juan Ramon Rodríguez, Iñaki Zubikarai eta Aitor Lameira.

Mara Mara


MENDI KIROLAK

ARRAGUETA
KALEA 10
EIBAR
UF: 943702063



MENDIRAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
Trail running-erako zapatilak
Arropa eta motxilak
Dena mendian korrika egiteko
%30 eta %40ko deskontuak
neguko arropan

Voces y Cuerdas taldeak abeslari berria aurkeztuko du gaur 20.30etan Coliseoan. Marivi Murillo da Asun Angueraren testigantza hartuko duen abeslaria. Pozik eta gogotsu agertu ziren aurkezpenean, musikariak, zein abeslaria. Gainera, Antton Sarasua gitarra baxuan eta Gorka Baskaran perkusioan arituko dira.



MARIVI MURILLO (Voces y Cuerdas): "Gitarra hartuta berehala hasten naiz kantuan"

- Zer da zuretzat Voces y Cuerdas taldeko abeslari berria izatea?

Hasieran sorpresa handia izan zen. Ahizpa etorri zitzaidan esanez Voces y Cuerdas taldekoak abeslari bila zebiltzala eta nire izena eman ziela. Betidanik gustatu izan zait abestea, etxean egindako afari edo festetan, urtebetetzeetan eta abar beti abestu izan dut. Gitarra hartu eta berahala ipintzen naiz kantuan, baina hori beste kontu bat da. Orain, Voces y Cuerdas taldeko abeslaria izatea ohore eta plazer handia da niretzat, musikari eta abeslari hauekin batera kantatzeko aukera daukadalako. Ni-rearekin bat egiten duten beste ahots bi aurkitzea zoragarria da eta hasi nintzenetik oso gustora nago taldean.

- Noiztik zabilta taldean?

Udazkenean batu nintzen, urria inguruan.

- Eta orain arte ibili zara beste talderen batean?

Ez. Tira, institutuko jaialdian eta antzeko gauzetan ibili izan naiz gauzatxoak egiten. Festetan, ospakizunetan... baina talde batekin ez.

- Aldea egongo da etxean edo lagun artean kantatzetik talde batekin abestera.

Erantzunkizun sentsazioa daukat orain. Gitarra hartu eta lagun artean abestea erraza

da, berahala libratzen zarelako eta egiten duzuna hor geratzen delako, lagun aurrean edo familia giroan. Eszenatoki gainean urteak daramatzan taldea da hau eta, egonkortasuna dutenez, errazagoa da eurekin ikastea. Asko harritu nau eurek duten entzumena, berehala antzematen dute zein doinutan egin duzun. Ni neure ahotsa ipini eta ahalik eta hobetoen egiten saiatzen naiz. Hasieran Los Panchos taldean banengo bezala sentitzen nintzen, oso babestua. Aritua nintzen musika kontuetan, baina eurekin asko ikasi dut denbora honetan.

- ...

Pertsonalki, gainera, ilusioa egiten dit aurrera jarraitzeak. Nire aitxixa, Emilio Goin, gerraosteko aratosteetan gitarra-ekin irtetzen zen eta, moduren batean, familiako musika izpirituarekin jarraitzen dut. Bestetik, beti gustatu izan zait Voces y Cuerdasek egiten duen musika: boleroak, hegoamerikako musika... hori edan dut bizitza osoan. Behin, osabak gitarra oparitu zidan eta amamak esan zuen: "gure baltza moduan!", aitxitzaz berbetan. Ordutik ospakizun guztietan gitarra atera eta kantuan ibili naiz. Beraz, pozgarria da orain Voces y Cuerdasekin musika hau plazaratzea, polita delako eta Eibarren beti gustatu izan delako.



Barry Manleyrekin barrezka

Martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkarteak Illunabarrian ekimenaren barruan antolatutako umorezko bakarrizketa saioak erakarrira jende mordoia izan zen Portaleko areto nagusian: Barry Manley irlandarrak pare bat urte daramatza Euskal Herrian horrelako ikuskizunak euskaraz eskaintzen eta publikoak pozarren jarraitu zituen proiektioekin lagunduta esan zituen kontu guztiak.



Umeen danborradarako entseguak

Sanjuanetan umeen danborradan irten nahi dutenentzat entseguak eguaztenean hasi ziren eta, aurrerantzean, eguazteneo egingo dituzte, 19.00etan Bittor Sarasketa kalean Udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean). Bakoitzak bere ikastetxean eman behar du izena. Helduentzako entseguak, berriz, maiatzaren 2tik aurrera hasiko dira, toki berean, baina 20.00etan.




Sukaldaritza natural eta energetikoa

Defibel Fibromialgia Elkarteak antolatuta, sukaldaritza natural eta energetikoaren inguruko ikastaro bi emango dira: maiatzak 5ean "Cómo llevar una alimentación equilibrada" izenburukoa eta maiatzak 26an, berriz, "La alimentación y las emociones". Parte hartzeko interesa duenak asoc.defibel@gmail.com helbidera idatzita edo, nahiago izanez gero, 678068959 (Ines) edo 695780058 (Jesús) telefonoetako batera deituta eman dezake izena.

Euskal dantzaren adierazpena egingo da bihar

BIHAR EGUERDIAN SINATUKO DA EIBARRAREN EUSKAL DANTZAREN ADIERAZPENA, horrela, sinadura ekitaldiarekin, azken hilabete bietan garatutako elkarrizketa eta kontsentsu bilaketako prozesua biribilduta. Ekimenaren sustatzaileen berbetan, "prozesuan euskal dantza tradizionalako sektoreko 160 kidek hartu du parte, bere proposamenak eta zuzenketak eginez, denen artean euskal dantzaren inguruko adierazpen hau kontsentsuz adostuz". Besteak beste, adierazpena adosteko prozesuan Bizkaia, Zuberoa, Nafarroa, Lapurdi, Araba eta Gipuzkoako dantzariak, dantza irakasleak, musikariak eta, oro har dantzazaleak jardun dute eta horiek guztiek bihar bat egingo dute gurean, Euskal Dantza-

ren Adierazpena-Biharamuneko soka-dantza ekitaldian. Adierazpenaren aurkezpena eta sinadura ekitaldia udaletxean egingo dituzte, 12.30etan eta, ondoren, parte-hartzaile guztiek, elkarri eskutik helduta, soka-dantza dantzatuko dute Untzaga plazan 13.00ak aldera. Biharko ekitaldiak, bestalde, datozen egunotan beste jardura batzuekin jarraipena izango duen Eibarko Bonbardaketen 75. urteurrenaren harira antolatutako programazioari hasiera emango dio.



Bonbardaketen 75. urtemuga

EIBAR BONBARDATU ZUTELA 75 URTE BETEKO DIRA DATORREN ASTEAN eta, hori gogoratzeko egitarauari jarraituta, Jesus Gutierrez historialariak hitzaldia emango du eguaztenean, hilaren 25ean 19.00etan hasita: gerra sasoiaren Eibarren bizi izandakoa eta bertoko berezitasunak azalduko ditu historiaren arlo horretan aditua den historialariak. Eta hilaren 26an (egunean)

Maialen Lujanbio bertsolariak eta Juan Pinilla flamenko abeslariak Coliseoan poesia eta kantu errezitala eskainiko dute: artista bieak, bertso, abesti eta poesiaz baliatuta, gerra sasoiaren ekarriko dute gogora eta euren ahotsei laguntzeko, argazkiak eta bideoak erabiliko dituzte, besteak beste Indalecio Ojanguren argazkilariaren eta Castriño-Ortuoste fondoko irudiak erakutsita.

laburrak

SANJUANETARAKO ASANBLADA

Gaur 19.00etan, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta, Montekasino taberna pareko parkean asanblada irekia egingo da San Juan jaietarako jarduerak antolatzen hasteko.

IÑIGO LARIZEN HITZALDIA

Apirilak 26an, egunean, Iñigo Larizek hitzaldia emango du 19.30etan Klub Deportiboan, "Eski-alpinismoa eta lasterketak" izenburuari jarraituta. Jarraian pintxo-poteoa egongo da.

IPUIN-LEHIAKETA

El Corte Inglés-ak antolatutako ipuin-lehiaketako sari-banaketa ekitaldia bihar ospatuko dute bertako aretoan, 18.00etatik aurrera.



Aztain Industrialdea, 3 - H 943 120108

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA

KALITATEZKO OBRAK

Sukaldeak, komunak edo etxe osoak

Teilatuak, impermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...



%5^{eko} DESKONTUA

SUKALDE eta BAINUGELA erreformetan (IGELTSERITZA lanetan) maiatzaren 31ra arte

EGOITZA NAGUSIA

Abuztuaren 20 - beheko eskualdea

MUGICA FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Erredukzio laber

Egokien (Signo poligono)

Partikular, erakunde eta enpresa erakundeentzako

Koak - Eskala - Urteurrenako ekitaldiak

Euskal Herri osoan ospatzen dituzten ekitaldiak

Nazioarteko Nazioarteko irudiak



TELEFONOA (34 943) 943 201 951



Ogia egiteko tailerra

AZATAPORRUA ELKARTEAK ANTOLATUTA, OGIA EGITEN IKASTEKO tailerra antolatu du maiatzaren 12rako (zapatua). Lau orduko ikastaroa 16.00etan hasi eta 20.00etan amaituko da eta Portalean (sukaldean) emango dute Teba Gonzálezek eta Juantxo Aranburuk. Izena emateko eguzten arratsaldetan Azataporrua elkartera (Juan Gisasola kalean) jo daiteke. Tailerraren prezioa 30 eurokoa da.



Euskararen transmisioaren mintegirako izen-ematea


MAIATZAREN 8-AN EUSKARAREN TRANSMISIOAREN INGURUKO MINTEGIA HARTUKO DU Portaleak, ...eta Kitto! Euskara Elkartek Udalaren laguntzarekin antolatuta. Iaz egindakoaren bidetik, egun osorako mintegia irakasleei, euskara teknikariei, euskara elkarreetako beharginei eta aisialdiko elkarreetan dihardutenei zuzenduta dago eta izena emateko epea astelehenaz geroztik dago zabalik (20 euro, bazkaria barne). Interesa dutenek ...eta kitto! Euskara Elkartera jo dezakete (Urkizu, 11 solairuartea), 943200918 telefono zenbakira deitu edo normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzi.

Liburutegia e-readerren mailegua irakurgelan eskaintzen hasi da

IRAKURKETA FORMATO BERRI HORI EZAGUTZERA EMATEKO ASMOZ, JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA e-readerren mailegua irakurgelan zerbitzua eskaintzen hasi da. Horretarako, 3 irakurgailu, bakoitza modelo batekoa (Sony Reader, Grammata Papyre eta BQ Readers Movistar) erosi dituzte, Eusko Jaurilaritzak emandako diru-laguntzari esker. Liburutegiko arduradunen berbetan, "horrela, 18 urte baino gehiagoko edonork, liburutegira bertaratzen denean, aukera izango du 3 tresna hauek erabiltzeko eta beraien arteko konparaketak egiteko. Beraz, nor-

bait halako aparaturen bat erosteko zalantzan baldin badago, hementxe dauka aukera ezin hobea nola erabiltzen den ikusteko, nola irakurri ahal den bertan eta abar".

E-reader bakoitzean 19 e-book sartu dituzte, proba modura eta lanen hizkuntzei dagokionez, irakurgaiak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanieraz irakurtzeko aukera izango da. Liburutegiko arduradunek diotenez, "tresna txikia eta erraz erabiltzekoa da. Beraz, tresna eroso da irakurketarako, batez ere ikusmen arazoak dituz-



tenentzat.

Izan ere, orrialde-zenbaketa eta testuaren tamaina egokitzeko aukera ematen du eta, gainera, tinta elektronikoa-ren teknologia berriari esker, paperezko liburuak baino kalitate handiagoa eskaintzen du irakurketarako. Audioliburuak entzuteko aukera ere ematen du, soinua sartzen baitu".



HILAREN 12-TIK 14-RA BITARTEAN JUAN BAUTISTA GISASOLA MUSIKA ESKOLAKO SOINU IKASLEAK Bartzelona ezagutu eta bertan kontzertua emateko aukera paregabea izan zuten. Marisol Arrillaga irakasleak kontatu digunez, "bidaian 11 lagun izan ginen, horietatik zortzi


Musika Eskolako ikasleak Bartzelonan

Bartzelonako Centre Cultural Riera Blanca-n kontzertua eskaini zuten 14 eta 17 urte bitarteko ikasleak. Emanaldira joandakoek akordeoia, soinua txikia, panderoa, dantza eta kanta batu zituen ikus-kizunarekin gozatzeko aukera izan zuten". Gainera, eibartarrek ostatu hartuta zeuden aterpetxean 10. urteurrena ospatzen ziharduten eta euren egitarauaren barruan emanaldia eskaintzea proposatu zieten eta proposamenari baietza eman zioten. Euren berbetan, "oso berezia izan zen munduko toki ezberdinetako jendearen aurrean jardutea". Entsegu baten eta bestearen artean Bartzelona piskat ezagutzeko tartea ere izan zuten eta, beraz, pozarren itzuli dira etxera.

Institutuko en Egungo Islak


GAUR 19.00-ETAN HASI ETA HILAREN 29RA BITARTEAN IGNAZIO ZULOAGAREN Egungo Islak erakusketa hartuko du Portaleko erakusketa aretoak.

Bertan 16 eta 19 urte bitarteko 45 ikasleren artelanak ikusteko aukera izango da, gehienak Arte Batxilergoko ikasleek egindakoak, baina beste batxilergoetan diharduten hainbat ikaslek egindako batzuk ere ikusgai izango dira. Artelanak orotari-koak izango dira eta martitzetik domekara bitartean egongo da bisitan joateko aukera, 18.30etatik 20.30etara.




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, GARI, zure urtebetetzian. Muxu haundi bat, pototo, Ganix, Garat eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, MARKEL, martitzenian sei urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxeko erregiarentzat famelixaren partez.




Zorionak, OIHENART, gure mutiltxo, 18xan urtebete egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta Aioraren partez.




Zorionak, IRATI Del Río Gilo, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Guraso, aitxitxa-amama eta tioen partez.



Zorionak, XABIER, martitzenian hamar urte bete zenduaz-elako. Lagunen eta famelixakuen partez.




Zorionak, ASIER, hillaren 11n hamar urte egin zenduaz-elako. Famelixakuen eta lagunaren partez.




Zorionak, JULEN, astelehenian kirolarixak hamahiru urte bete zittuan-eta. Etxeko guztien partez.




Zorionak, IRATXE, etxeko neska haundixak eguaztenian hamabi urte egin zittuan-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, astelehenian hamar urte egin zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, JUNE zure arrebiaren partez.



Ongi etorri, NORA, hillaren 10ian gure artera etorri zitiñan-eta. Eta zorionak, MARIAN, atzo lau urte bete zenduaz-elako. Muxu potolo bat famelixaren partez.




Zorionak, MARIAN, martitzenian urtiak bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat danon partez.




Zorionak, ARRATE (bixar zazpi urte egingo dozuz) eta MIKEL (hillaren 5ian bi urtetxo bete zenduaz-en-eta). Muxu potolua famelixaren partez.



Zorionak, MAITANE (hillaren 8xan bederatzu urte bete zenduaz-en) eta ANDER (hamahiru egin zenduaz-en atzo). Muxu haundi bat bixontzat famelixaren partez.



Zorionak, NAHIA (domekan hiru urte egingo dozuz) eta OSKAR (atzo bete zenduaz-en urtiak). Laztan haundi bana bixori.



Zorionak, UGAITZ, atzo bost urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

20an: 22.30

21ean: 17.00, 19.45, 22.30

22an: 17.00, 20.00

23an: 20.30

"Indomable"

Zuzendaria: S. Soderbergh



(2 ARETOAN)

20an: 22.30

21ean: 17.00, 19.45, 22.30

22an: 17.00, 20.00

23an: 20.30

"El exótico hotel Marigold"

Zuzendaria: John Madden



(ANTZOKIAN)

20an: 22.30

21ean: 22.30

22an: 20.00

23an: 20.30

"Todos los días de mi vida"

Zuzendaria: Michael Sucsy



(ANTZOKIAN)

21ean: 17.00, 19.45

22an: 17.00

"La invención de Hugo" 3D

Zuzendaria: Martin Scorsese



horoskopoa

ARIES

Odola berotu zaizu udaberriarekin eta ezagun da zure portaeran. Horri etekina ateratzen jakingo duzu; ez duzu nahi izango berriz hoztea.

TAURUS

Zonbietan sinesten duzu? Euren antza daukazu, arima bariko baten moduan ibiliko baitzara egunotan. Lasai, hobera joango da gero.

GEMINI

Bihotzari kasu gehiago egin beharko zenioke. Buruari larregi jarraitzen diozu eta gero ez zara pozik geratzen emaitzarekin: eman aukera bihotzari.

CANCER

Uda noiz iritsi zain irrikaz zaude, baina zergatik ez duzu egun bakoitza aprobetxatzen? Momentu bakoitza baloratzen ikasi behar duzu.

LEO

Nahiko zikin jokatu du lagun batek eta errieta bota beharrean sentituko zara. Berak txarto hartzen badu ere, zuk egin beharrekoa egin duzu.

VIRGO

Aldaketak behar dituzu zure bizitzan. Ez zaude gustora eta hainbat arazo dituzu konpontzeko. Datosen egunak oso garrantzitsuak izango dira.

LIBRA

Giro polita bizi duzu etxean eta nabari da etxetik kanpo dituzun harremanetan. Jarrera positibo horri luzaroz eustea da behar duzuna.

SCORPIUS

Gauza bereziak gertatu zaizkizu azken asteotan, baina orain sasoi monotonoa duzu aurrean. Lasaitasun pixka bat ez datorkizu gaizki.

SAGITTARIUS

Jaten duzuna gehiago zaindu beharko zenuke, azken aldian txerrikeria larregi sartzen duzulako zure sabelean. Osasuntsuago jan!

CAPRICORNIUS

Berritasunak zure bizitzan. Aro berria hasiko duzu, zirrargaria eta, era berean, misterioz bete. Hori bai, gogotsu ekingo diozu sasoi berriari.

AQUARIUS

Mugikorrarekin arazoak izango dituzu eta egoera berezia biziko duzu. Bitxia eta barrengarria, aldi berean. Ea nola konpontzen duzun misterio hori.

PISCIS

Aspaldian ikusi bariko lagunekin batu eta iraganeko kontuak gogoratuko dituzue. Ea hurrengo deialdirako ez den hainbeste denbora pasatzen.

HILDAKOAK

- Adolfo Pérez González. 94 urte. 2012-IV-4.
- Romualdo Martín Martín. 80 urte. 2012-IV-9.
- Pilar Kortaberria Aranguren. 87 urte. 2012-IV-13.
- Pedro Pascual Martínez. 89 urte. 2012-IV-14.
- Jone Alzaa Fernández. 48 urte. 2012-IV-14.
- Asunción Olalde Gardoki. 58 urte. 2012-IV-17.
- Emilia Fernández Fernández. 88 urte. 2012-IV-17.
- Virginia Llorente Bilbao. 2012-IV-18.

JAIOTAKOAK

- Helene Jauregi Cuevas. 2012-IV-3.
- Maitane Piloizo Delgado. 2012-IV-7.
- Nora Aranbarri Sánchez. 2012-IV-10.

Domeka 22

INTXORTA 75 URTE

12.00.- Intxortako atean omenaldi-ekitaldia. Elgetara martxa, Andoaingo Banda Errepublikararekin, lore eskaintza Salbadarren. **14.30.-** Bazkaria. Elgetan.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

KONTZERTUA

19.00.- SSHSounds (electronic pop, Argentina). Karrika tabernan.

Astlehena 23

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

10.00/13.00 eta 16.00/19.00.- Juan San Martin Liburutegia ezagutzera emateko mahaia, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Untzagan.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- "Disziplin positiboa". Itzio BHI-n.

Martitzena 24

IKASTEN

10.00.- "Como disfrutar de la música", Marina Lertxundiren eskutik. Armeria Eskolan.

HEZKUNTZAREN KANPAINA

17.00.- "En el mundo a cada rato" dokumentalaren emanaldia (10-14 urte), Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanpainaren barruan. Juan San Martin Liburutegian.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- "Disziplin positiboa" (euskaraz). Mogel Isasi-n.

HITZALDIA

19.00.- "Zero zabor: posible al da atez-atekorik gabe?". Kultu-n.

Barixakua 20

GAZTELEKUA

16.30.- Munduko musikak. Indianokua gaztelekuan.

HITZALDIA

18.00.- "Cómo prevenir la demencia" hitzaldia, José Félix Martí Massó, Donostia Ospitaleko Neurologia zerbitzuko buruaren eskutik. Buruz Gimnasio Cerebral-ek antolatuta. Portalean.

KONTZERTUA

20.30.- Voces y Cuerdas. Sarrera: 6 euro. Coliseoan.

Zapatua 21

BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

12.00.- Euskal dantzaren adierazpena eta Biharamuneko soka-dantza. Untzaga plazan elkartzea.

12.30.- Euskal Dantzaren Adierazpena.

13.00.- Biharamuneko soka-dantza. Untzagan.

GAZTELEKUA

17.00.- Munduko errezetak. Indianokua gaztelekuan.

KALEETAN KANTUZ

19.45.- Kaleetan Kantuz-ekoen iteera. Untzagatik abiatuta.

KONTZERTUA

22.30.- La Oreja de Van Gogh, "Cometas en el cielo" disko berria aurkezten. Astelena frontoian.

DJ SAIOA

00.00.- Korrupter Brothers (live set). Inaland vs Dj Txarli (only vinyl set). Karrika tabernan.

Eguaztena 25

BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

11.30.- Omenduko diren gudari harrera.

12.00.- Ikurriña igotzea eta ohorezko aurrekua dantzatzea.

13.00.- Omenduei oroigarria banatzea. Jarraian, bazkaria Batzokian. EAJ-k antolatuta. **19.00.-** Jesús Gutierrez historialariaren eskutik "Elbarko bonbardaketaren 75. urteurrena". Portalean.

HEZKUNTZAREN KANPAINA

17.00.- "Irudi Handia: eskubideak hasieratik" dokumentalaren emanaldia (6-9 urte), Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanpainaren barruan. Juan San Martin Liburutegian.

Eguena 26

IKASTEN

11.00.- "Competencias conversacionales: saber conversar para mejorar las relaciones", Equilia-ren eskutik. Armeria Eskolan. **19.30.-** Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokalean.

HEZKUNTZAREN KANPAINA

16.00.- "Amina y Musa aprenden" dokumentalaren emanaldia (6-9 urte), Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanpainaren barruan. Liburutegian.

EGOIBAR ZINEKLUBA

17.30 eta 21.00.- "Los manos en el aire" (Zuz: Romain Goupil). Hezkuntza Esparruan

HITZALDIA ETA PINTXO-POTEOA


19.30.- "Eski-alpinismoa eta lasterketak", Iñigo Larizen eskutik. Pintxo-poteoa ere. Klub Deportiboan.

ARDO-DASTAKETA

20.00.- Ardo-dastaketa, Javier Rodríguez enologoak gidatuta, Ongi Etorri-n. Doan gonbidapenarekin (Ongi Etorri, Kultu, Koskor eta Batzokian).

BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

20.30.- Poesia eta Kantuen Errezitala, Maialen Lujanbio eta Juan Pinillarekin. Sarrera: 7 euro. Coliseoan.



erakusketak

- Apirilaren 29ra arte
"INDALEZIO PRIETO euskal politikan, 1883-1962". Portalean.
AITOR CANOren pintura eta egur-taila erakusketa. Topalekuan.
IGNAZIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK Arte Batxilergoko ikasleen erakusketa. Portalean.
- Apirilaren 30era arte
JOSE VILAren "Aratosteak" argazki erakusketa. Portalea tabernan.
JOSE LUIS IRIGOIENen "Aratosteak" argazki erakusketa. El Ambigü kafetegian.
ASIER ARANZABALen "Mongolia" argazki erakusketa. Klub Deportiboan.

lehiaketak

- **Li (buru-hausgarriak).**
 Apirilaren 17tik aurrera, umeen liburutegian (LH-ko 2. mailatik aurrerakoentzat).
- **Amestu Zure Herria.**
 Informazioa eta lanak entregatzea: **Apirilaren 30era arte**, www.gurebaliok.com atarian.
- **Ixua-Valenciaga Memoriala argazki-lehiaketa.**
 Informazioa eta lanak entregatzea: **Maiatzaren 4ra arte**, Elbarko Txirrindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 behe), cce@clubciclistaeibarres.org
- **Sanjuanak 2012 Eibarren kartel lehiaketa.**
 Informazioa eta lanak entregatzea: **Maiatzaren 11ra arte**, Pegoran.
- **Alkohol gehiegikeriaren kontrako umorezko pegatina- lehiaketa.**
 Informazioa eta lanak entregatzea: **Maiatzaren 11ra arte**, Pegoran.

farmaziak

- 20, barixakua**
 EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
 GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 21, zapatua**
 EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
 GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 22, domeka**
 EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
 GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)
- 23, astelehena**
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- 24, martitzena**
 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
- 25, eguaztena**
 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
 GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- 26, eguena**
 EGUNEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
 GAUEZ Iraundegi (Sostoatarren, 10)
- 27, barixakua**
 EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63


autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

2	4			1	6		
		3	4	5			9
							1
		6		3	9		
	1					3	
			5	8		7	
6							
5		2		3	8		
	9	7				2	5

DENBORAPASAK



AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibar erdialdean (Eibarko Txikito). Logela bi, egongela, sukalde, komuna eta igogailua. 150.000 euro. Tel. 672-622774.

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta trasteroa. Igogailuarekin. 130 m². Guztiz berritua eta argitsua.. Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Ubitxa kalean. 2 logela. Igogailua eta kalefakzioa. Sartzeko moduan. Tel. 685-732596.

– Pisua alokatuko genuke Ermuan edo Eibarren. Tel. 666-777837.

– Urki auzunean logela alokagai neska euskaldun batentzat. Sukaldera eta egongelara sartzeko eskubidearekin. Tel. 637-276278.

– Pisua alokagai Elgetan. Ia berria. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta bi komun. Tel. 606-083992.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea salgai Asua-Errekan. Sarrera ona. Tel. 670-793312.

– Garajea salgai Bittor Sarasketan. Tel. 617-742848.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

– Martxan dagoen ostalaritza negozioa salgai. Tel. 616-664880.

– Neska talde batek lokal bat hartuko luke alokairuan, bainuarekin. Eibarren, Urkizu aldean ahal bada. Tel. 697-532570.

– 60 m²ko lokala (zatigarria) alokagai Otaola hiribidean. 24 urteik gorako koadrilentzat eta musika-taldentzat egokia. Tel. 681-303507.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 639-611454.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 634-782031.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldean laguntzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-052084.

– Mutil arduratsua eskaintzen da tabernan lan egiteko. Esperientzia barran, jantokian eta sukaldean laguntzen. Tel. 686-052084 eta 943-257815.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-771151.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 674-481945.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 628-924044.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 695-144954.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 671-329852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 670-831279.

– Neska euskalduna eskaintzen da tabernak, soziedadek eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-276278.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanetarako. Tel. 687-114707.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. Tel. 636-922727.

– Ordenagailuak konpontzen dira etxez-etxe. Prezio onean. Tel. 669-639526.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (egunez, gauez edo orduka) eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-632922.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-029329 eta 670-831279.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-257684 eta 671-328852.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 650-152866.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-802342.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Tel. 675-007271.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-897285.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatrian eta Psikologian esperientzia. Tel. 635-313375.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 626-292587.

– Mutila eskaintzen da igeltsero zein kamarero jarduteko. Esperientzia. Tel. 626-292587.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-925929.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-725453.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 659-628990.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 943-257684 eta 671-329852.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-303534.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 670-831279.

– Topografo titulatuak topografia lanak zein beste edozein egiteko prest. Tel. 638-560617.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-571210.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia elektrizitatean eta iturgintzan. Tel. 678-255795.

– Mutil euskalduna eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 696-496427 eta 943-200939. Javier.

– Neska eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 646-323154.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 666-771151.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 669-513926.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 660-164576.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan edo orduka. Tel. 610-992855.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 617-126144.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-116350.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-798284.

4.2. Langile bila

– Kamareroak eta sukaldari-laguntzaileak behar dira taberna berri batean lan egiteko. Ezinbestekoa euskaraz jakitea. Tel. 686-567471.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Euskara klaseak ematen dira azterketak prestatzeko eta perfilak eta EGA lortzeko. HABE-ren mailak. Tel. 620-608065.

– Gazte tituluduna eskaintzen da DBHko Zientziak arloko klase partikularrek emateko. Esperientzia. Tel. 636-385156.

– Esperientziadun irakaslea eskaintzen da maila desberdinetako klase partikularrek emateko. 2/3 lagun. Tel. 685-739709.

– Atzerriko Hizkuntzan diplomatutako mutila eskaintzen da LH eta DBHko klase partikularrek emateko. Tel. 651-503971.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bulego-materiala salgai (Herpesa etxekoa). Egoera onean. Tel. 692-714685.

– Avalanch 3.0 bizikleta salgai. Tel. 687-342962.

– Hankadun somierra (1'35x1'90), bi mahaitxo eta bi lanpara salgai. Ia berriak. 80 euro. Tel. 660-805301 eta 679-867543.

– Salmoi koloreko sofa bi salgai (3 eta 2 lagunentzakoak). Urtebete. 300 euro. Tel. 660-805301 eta 679-867543.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitarako betaurrekoak aurkitu ziren Arraten martxoaren amaieran. Tel. 943-206902. Kontxi.



INTXORTA 75 URTE

1937ko apirilaren 24an faxistek Elgeta hartu zuten. Zibil eta milizianoak fusilatuz, nekato zein emakumeak botaatuz

APIRILAK 22 IGANDEA

12:00 INTXORTAKO ATEAN
OMENALDI-EKITALDIA

ELGETARA MARTXA

- ANDAINGO BANDA
- ERREPUBLIKARRAREN
- LORE ESKAINTZA SALBADORRIEN

14:30 BAZKARIA

Orain amateko
IntxortarakoElgeta.com zita 943 708 022

APIRILEAN ZEHAR

BISITA GIDATUAK

Orain amateko
IntxortarakoElgeta.com zita 943 708 022

APIRILAK 8 IGANDEA

APIRILAK 15 IGANDEA

Raur eta gurtioentzako bisitaldi berezia

APIRILAK 29 IGANDEA

*Onoimena, egia, justizia, enperazioen
eta leuz ez gertatzeko bermeak*



EUZKO LEGBURU BATZARDEA



EUZKO KULTURAREN ONDAREA

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75